

# EUSKARAREN Berripapera

Euskadi Literatura Sariak 2001

## Ramon Saizarbitoria, Fernando Aramburu, Karlos Linazasoro eta Josu Zabaleta, irabazle

aurkibidea

- 1 • Euskadi Literatura Sariak 2001
- 2 • PERTSONAJEA: Resurreccion Maria Azkue  
• LABURRAK: Jon Alonso, Juan Zelaia saiakera sariaren irabazle  
• AGENDA: Bizkaiera ikastaroa Ondarroan  
Euskararen aldeko kanpaina Iparraldean
- 3 • Eusko Ikaskuntzaren biltzarra  
• Armand David, Pandaren aita liburua kalean
- 4 • HABEren zerbitzu berria: Ikaslearen gunea

**B**anatu berri dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak. 2001. urteko aldi honetan Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean*, Fernando Arambururen *Los ojos vacíos*, Karlos Linazasororen *Bota gorriak*, eta Josu Zabaletak itzultitako Guy de Maupassanten *Fantasiatzko ipuinak* liburuak izan dira irabazle.

### Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean*

Euskarazko literaturari dagokionez, Arantxa Urretabizkaia, Joxe Agustin Arrieta Egiguren, Laura Uruburu, Gorka Aulestia eta Ur Apalategi izan dira epaimahaikide. Horiek aho batez erabaki dute Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean* liburuari ematea modalitate honetako Euskadi saria. Epaimahaiaren arabera, bost narrazio luzez osaturiko liburu horrekin goi mailako literatura emaitza lortu du idazle donostiarrak. Bost narrazioak lotzen dituen hari tematikoa sotila izanik ere, batasun sententzia nagusitzen da gaien ezberdintasunaren gainetik. Bestalde, liburu kultua da, historia eta zientzia ongi uztartzen dituena.

### Fernando Arambururen *Los ojos vacíos*

Epaimahaiak adierazi duenez, Fernando Arambururen lanak kalitate literario handia du. Gainera, gaur eguneko nobela pikaeskoaren tradizioarekiko lotura ageri du. Beste meritua batzuen artean, pertsonaien izaera borobiltzeko egileak erabili duen ironia ere goraitatu du epaimahaiak. Hona-

koak izan dira epaimahaikide: Angel Ortiz Alfau, Ana Arregi, Enrique Gutiérrez Ordorika, Maria Bengoa, eta Iban Zaldua.

### Karlos Linazasororen *Bota gorriak*

Modalitate honetan ere bost lagun izan dira epaimahaian: Felipe Juaristi, Arantza Baltzategi, Xabier Kaltzakorta, Jon Suárez eta Nerea Arregi. Epaimahaikideek sariztatu duten lanaren meritua eta merezi onen artean, egitura, originaltasuna eta berrikuntza azpimarratu behar dira eta, horrekin batera, hitzen jolas zein poetikotasuna.

### Josu Zabaletak itzultitako *Fantasiatzko ipuinak*

Itzulpengintzarako saria erabakitzeko epaimahaia Koldo Bigurik, Mari Jose Kerxetak, Mikel Hoyosek, Mitxel Muruak eta Pedro Díez de Ultzurru- nek osatu dute. Lanaren merezimenduen artean, hauexek dira azpimarragarrien: itzultzaileak erabiltzen duen euskara aberats, jori eta gozoa, bai eta jatorrizkoaren garaiko frantsesa eta idazlearen estilo landua euskarara egokitzeko itzultzaileak egin duen lan aipagarria ere.

Saririk jasoko ez badu ere, epaimahaiak Xabier Olarrak itzultitako Ambrose Bierceren *Deabruaren hiztegia* lanari aipamen berezia egin dio. Epaimahaiak jatorrizkoaren estilo jostaria, hitz-jokoak, zinismoa eta poesia-lana euskarara ekartzen itzultzaileak erakutsi duen trebetasuna azpimarratu du.



ZALDI ERO



ZALDI ERO

## Laburrak

### Jon Alonso, Juan Zelaia saiakera sariaren irabazle



Jon Alonso idazle eta itzultzaileak irabazi du Juan Zelaia saiakera sariaren lehen edizioa. Lanaren izenburua, *Agur, Darwin, eta beste arkeologia batzuk*. Obra Durangoko Azokarako kaleratuko du Pamiela argitaletxeak. Joxe Anjel Irigarai, Aurelia Arkotxa, Iñaki Goirizelaia, Garbiñe Biurrun eta Iñigo Lamarka izan dira epaimahaikide. Alonsoren lana saritzeaz batera, Joxe Manuel Odriozolaren *Euskal Inteligiensiarren ideologia zantzuak* saiakerari aipamen berezia egin diote.

## Agenda

### Bizkaiera ikastaroa Ondarroan



Batuaz alfabetaturik egon arren bizkaieraz ez dakitenentzat euskalkira hurreratzeko ikastaroa antolatu du Arranondo kultur elkarteak Ondarroan. Azaroko lau larunbatetan burutuko da ikastaroa. Izen-emateak, udaletxeko Euskara Zerbitzuan.

Bizkaieraren aldeko ekimenetan, bestalde, Euskaldunon Egunkariak ere bizkaieraz idazteko zerbitzua abiatu du bere webgunean, honako helbide honetan: [www.egunkaria.com/bizkaiera](http://www.egunkaria.com/bizkaiera).

### Euskararen aldeko kanpaina Iparraldean



Euskal Kultur Erakundeak eta Euskal Konfederazioak antolaturik, hainbat ekimen burutuko dira Iparraldean "Euskara ikas eta erabili" lemapean, azaroaren 5etik 24ra. Helburua da 2001

Hizkuntzen Europako Urtea ospatzea. Horretarako, hitzaldiak, kantaldiak eta bertso saioak izango dira. Gainera, Euskal Irratiek hizkuntza gutxituen gaineko irratsaio berezia egingo dute Europako beste 60 irratirekin batera.

## PERTSONAJEA

### R.M. Azkueren heriotzaren 50. urteurrena



BIDEGILEAK

**R**esurreccion Maria Azkue idazle eta euskaltzain handiaren heriotzaren 50. urteurrena betetzen da aurten. Haren lana eta bizitza aztertzeo aukera baliatu du Euskaltzaindiak, erakundea zuzendu zuen euskaltzaleari omen egiteko.

Resurreccion Jesus Maria de las Nieves Azkue Aberasturi 1864an jaio zen, Lekeition. Eusebio Maria izan zuen aita, olerkaria, eta Mari Karmen,

berriz, ama. Etxean bertan jaso zituen euskal literaturarako zaletasuna eta herri jakintzarako joera.

Lekeition bertan Nautika ikasketak burutu eta Bilbon egin zuen batxilergoa. Apaiz ikasketak Gasteizen eta Salamancan egin zituen, eta bertan apaiztu. Musika ikasketak ere egin zituen, Bruselan eta Kolonian.

Dena dela, Azkue gazterik lekutu zen Bilbon. Bertan eta bertatik egin zituen hizkuntza, folklore eta musika lanik handienak. 1888an, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Institutuan euskara irakasteko katedra sortu zuen, eta lehiaketa deitu zuen kargua betetzeko. Sabino Aranak eta Miguel Unamunok ere parte hartu arren, Azkuek lortu zuen katedra.

Euskal Herri dena ibili zuen hitz, esaera, kanta, ipuin eta era guztietako herri-jakintza bila. Aurrekoek ez bezala, sistematikoki, era metodikoan burutu zuen lana. Bere bizi guztian jardun zuen hizkuntzalaritzan. Are gehiago, ezaguna zen Europan garaiko hizkuntzalarien artean.

Azkuek egin zituen lanetan ezagunena hiztegia dugu: *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905). Bestalde, haren lan garrantzitsuenetakoa, Euskaltzaindia sortzea. Horretan, Elizalde, Kanpion eta Urkixoren laguntza izan zuen. Azkue euskaltzainburu izan zen erakundea sortu zenetik, 1918an. 1951n, Azkue hil zenean ere, euskaltzainburu zen.

Urte hartako urriaren 22an, Euskaltzaindiak Erribera kaleko 6. zenbakian zuen egoitzatik irten eta etxera bidean, irrist egin eta Nerbioira jausi zen, Arriaga atzean. Handik hamabost egunera hil zen, ibaiko ur zikinak pozoiturik.



ZALDI ERO

Eusko Ikaskuntzaren XV. biltzarra azaroaren 28, 29 eta 30ean

**Kultura, zientzia eta artea aztergai**

Eusko Ikaskuntzak XV. biltzarra egingo du, azaroaren 28, 29 eta 30ean. *Euskara, Zientzia eta Kultura eta Sare tematikoak* lelopean egingo da biltzarra eta 80 hizlari baino gehiago ariko dira bertan. Egingo diren hitzaldi eta mahai-inguruetan kulturaren, artearen eta zientziaren egungo egoera aztertuko dute, eta arretaz jorratuko dute alor haiek garatu eta hedatzeko teknologia berriek eskaintzen duten modua.

Hiru egunetan egingo diren ekitaldietan jakintzaren gizartea, gizarte zibila, literatura, antzez-arteak, arte plastikoak eta Euskal Herriak Europan duen tokia landuko dituzte, sei esparrutan banaturik: *Etorkizun bat gure iraganerako, Euskal Herria Europa berrian, Gizarte zibilaren ahotsa Euskal Herrian, Literatura eta antzez-arteak, Arte plastikoak eta Jakintzaren gizartea eta Euskal Herria*. Sei esparru horietatik bost Donostiako Kursaal jauregian eskainiko dira, eta bestea, arte plastikoei dagokiena, Nafarroako Unibertsitatean.

**80 hizlari baino gehiago**


Eusko Ikaskuntzaren kongresu honetan 80 bat hizlarik hartuko dute parte. Horien artean izango dira, adibidez, Pedro Miguel Etxenike (fisikari eta EHUko katedraduna), Iñaki Barcena (EHUko irakasle eta Ekologistak Martxan taldeko kidea), Mari Jose Olaziregi (literatur aditua), Josu Mujika (dantzari eta koreografoa), Andoni Egaña (bertsolari eta idazlea), Jorge Wagensberg (Bartzelonako Zientzia Museoko zuzendaria)...



EGUNKARIA

Hitzaldiez aparte, bestelako ekitaldiak ere izango dira kongresuaren baitan. Esaterako, *Arte elektronikoa Euskal Herrian* izenburuko erakusketa egingo da Donostiako Miramongo Kutxaespazioan.

Kongresuan parte hartu nahi izanez gero Eusko Ikaskuntzaren bulegoetara jo eta izen-emate orria bete behar da. Zenbait hitzalditara joateko izen-ematea, berriz, Eusko Ikaskuntzaren webgunearen bitartez egiteko aukera izango da.

**CAF-Elhuyar sariketako dibulgazio-proiektuaren emaitza*****Armand David, Pandaren aita* liburua kalean**

1999ko CAF-Elhuyar sariketako dibulgazio-proiektuaren saria irabazi zuen asmoa gauzatu du Kepa Altonaga biologo eta irakaslea. Emaitza, *Armand David, Pandaren aita* izeneko liburua. Bertan, Armand David (1826-1900) biologoaren berri ematen du idazlea, izan ere, gutxi baitaki panda hartza aurkitu zuen zientzialariaren jatorria Ezpeletan dagoela.

Armand Daviden ekarpena garrantzi handikoa izan arren, nekez topa liteke haren ekarpen zientifikoaren berririk, inon. Kepa Altonagaren liburuak hutsune handi hori bete du hemendik atzera.

CAF-Elhuyar sarietako zientzia-dibulgazioa dute helburu. Beasaingo CAF enpresak eta Elhuyar Kultur Elkarteak eraginda sortu ziren sariok 1994an eta bi sail izan ditu hasieratik: urtero antolatzen den dibulgazio-artikuluen saria, eta bi urtez behingo dibulgazio-liburuen beka.



## HABEren zerbitzu berria

**Ikaslearen gunea: ikas eta jolas, hizkuntza edonorako giltza Euskara-ikasleentzako baliabideak eskaintzen ditu**

**H**izkuntzen Urte Europarra den honetan HABEek *Ikaslearen gunea* abiarazi du Interneten. Bertan, euskara-ikasleak hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko baliabide ugari ditu aukeran. Zerbitzu berria HABENET sarean txertatzen da eta Internet eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak euskararen irakaskuntzaren zerbitzura jartzeko beste urrats bat da. Euskara ikasten edo hobetzen ari denak euskara erabili, ikasi eta ondo pasatzeko parada du [www.habe.org/ikaslearengunea](http://www.habe.org/ikaslearengunea) helbidean.

Horretarako, ikasleen aholku eta iradokizunak ezinbestekoak izango dira, beren beharretara egokitzea baita helburua.

**HABE @Idizkari elektronikoa**

Euskara-ikasleak Interneten du lehen aldizkari elektronikoa didaktikoa. Euskaraz irakurtzeko tresna entretenigarria eta euskara ikasteko baliabide aproposa izatea du helburu nagusia.

Euskara ikasleak duen maila duela bere gustuko eta gaurkotasun handiko irakurgaiak eta entzungaiak aurkituko ditu, testu-mota askoren bidez: erreportajeak, iritzi-artikuluak, elkarrizketak...

Era berean, ikasleak bakarka euskaraz ikasteko lanabes egokiak izango ditu eskura: ariketa mailakatuak, entzungaiak, transkripzioak, trebetasunen inguruko aholkuak eta beste. Azpima-

rratzekoak dira, era berean, *Elhuyar Hiztegia* (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara) *Hiztegia 3000* (euskara-gaztelania, gaztelania-euskara), *Sinonimoen hiztegia*; eta Euskaltzaindiaren arauak, besteak beste.

**Eduki eta baliabide gehiago**

Euskara-ikasleak, beraz, bi izaera dituen aldizkaria aurkituko du: paperezkoa eta elektronikoa. Euskarrian ez ezik, eduki eta baliabideetan ere desberdinak izango direnak, baina betiere elkarren osagarri.

Aldizkariak eskaintzen dituen edukien artean beste hainbat atal ere ageri dira. "Euskalkitegia", adibidez, euskara-ikasleak euskalkiak entzun eta dasta ditzan. "Antzoki iluna", irriti-nobelek eta irriti-antzerkiek osatzen duten saila (Arantxa Iturberen "Maite, maite, maitea" lana da sarean). "Euskara hobetzen", Euskadi Irratiak eta HABEek gauzaturiko irratsaioa, akatsik zabalduenetakoei erreparatu, okerrak nabarmendu eta euskara egokian nola erabili jakiteko. "Porrusalda", errezeta errazen bilduma. "Denborapasak", gurutzegramak, hitz-dorreak, itxuraldaketak...

Baliabide gehiago ere biltzen ditu bere baitan aldizkari elektronikoa: "Postalak", "Ipuinak", "Txistek", "Kantu-kantari", eta "Istorio animatuak", adibidez.

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: [l-sosoaga@ej-gv.es](mailto:l-sosoaga@ej-gv.es)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Heria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

